

Sozialismoa

Joxe Azurmendi

I.- Kontzeptua

Sozialismo kontzeptu orokorraz, eskuarki, *mugimendu edo eta teoria sozial, politiko eta ekonomiko antikapitalista multzo ezberdin bat ulertu ohi da, *jabetza pribatuaren ordean, sozialean oin hartu eta gizarte-sistema kolektibista (ik. KOLEKTIBISMOA) berri baten eraikuntza helburu duena, bide batez *jabetza pribatu liberalagatik dagoen ondasunen partiketa ezberdina eta daukatenen eta ez daukatenen arteko *gizartearen *klase edo eta maila-zatiketa gaindituz.

Hortik aurrera, sozialismo kontzeptuak, aplikazio maila ezberdinetan erabiltzeaz aparte, edukin eta esanahi ezberdinak hartzen ditu, eskola diferenteak baitaude, nolako abiapuntu edo kontzepziotan oin hartzen den, gizarte-azterketa nola egiten, edo helpideak nahiz helburuak nola zehatz bururatzen diren. Bereziki, *produkzio-ondasunen sozialteza nola moldatu puntuan dago gakoa, hots: nazionalteaz eta *Estatuaren gestioz, ala langileen beren *autogestioz, ala langileen Estatu sozialaren bitarteko produkzio-kontrolaz (kogestio), etab.

Era berean ezberdintasunak daude *gizarte sozialistaren antolamendu instituzional (ik. INSTITUZIOA) eta politikoaz, eta bereziki, produkzio-ondasunak ere kolektibatzen diren ala ez, honela jabetza eta lan-gestio pribatu oro ezabatuz.

Prozedurari dagokiola, halaber, lehenik jabetza kolektibo juridikoa Estatuaren eskuetan utzi eta, hura demokratizatuz gero, *proletalgoari zuzenean *produkzioaren kontrola eskuratuz joan, ala, alderantziz, produkzioaren eta produktu sozialen banaketaren kontrola demokratikoki irabaziz joan, azkenean jabetza juridiko kolektiboa lortzeraino, etab.

Hein berean Estatuaren **tauketaz** sortzen dira diferentziak: *erregimen demokratikoa ala *proletalgoaren *diktadura, etab.

Soziologikoki, sozialismoak teoria bakarra ez duen moduan, praxian sozialismoa ez da bat, alde askotatik elkarren etsai diren ikuspide eta teoriaren multzo handia baino. Hein honetan sozialismo izenari adjektiboren batek lagun egin ohi dio sarri, sozialismoaren berezitasuna adierazteko. **Oinarriekiko** erreferentziaz, sozialismo etiko, utopiko, erlijioso, humanista, zientifikoa, bereizi ohi dira; *kapitalismoaren azterketarekiko eta sozialismora ailegatzeko **helpide** edo **metodoekiko** erreferentziaz, *sozialismo demokratiko edo eboluzionista (gradualista, erreformista, errebisionista) eta iraultzailea izan daiteke; **sozialtze-prozesuaren subjektuari** begira, aldiz, proletal sozialismoa, nekazal sozialismoa, *Estatu-sozialismoa, sozialismo nazionala aurkitzen ditugu; **antolaera instituzionalari** begira, sozialismo sindikalista, kooperatibista, mutualista, korporatibista, autogestionario, soviatar, demokratiko, Batzarre edo Komunazko sozialismoa azaltzen dira; **azken jomugarekiko** erreferentziaz, sozialismoa eta komunismoa bereizten dira. Adiera zabalean, *mugimendu sozialista edo sozialismoaren gaurko aldakin nagusiak, *anarkismoa, komunismoa (*marxismo-leninismoa) eta *sozialismo demokratikoa dira.

A) Kontzeptuaren zehaztapena eta izena

Idea bera lehenagokoa izan arren, sozialismo eta sozialista terminoak 1826.ean agertzen dira lehen aldiz idatzita, Ingalaterran (in *London Co-operative Magazine*). Baina Frantzia (1832.etik aurrera) eta frantsesaren bitartez izan dute gero *zabalkundea, Lerouxen *Le Globe* aldizkariak sozialismoa baitzeritzan Saint-Simonismoari; sozialismoaz idatzitako lehen artikulua ere, 1835.ekoa, P. Lerouxena izan zen *Encyclopédie nouvelle*an. 1840.aldera, sozialismoa eta sozialista hitz zabalduak ziren jadanik Europa osoan.

Sozialismo izenak, egunero dituen usuario ezberdinetan zeri kontrastatu halako esanahi ezberdinak har ditzake: 1) Lehenik indibidualismo sozial eta ekonomikoari kontrajartzen zaio eta, beraz ***liberalismoari**: hein honetan, eskuarki, gizarte-antolamendurako printzipio liberal indibidualistaren aurka, printzipio kolektibista adierazten du, hots, edozein sozialismo aintzinako ala moderno. 2) Gero, eta mugatukiago, mugimendu sozialistaren beraren barruan, ***anarkismoari** kontrastatu izan zaio, II. Internazionalaren (ik. INTERNAZIONALAK) garaian, burruka *legala *Alderditan organizatua eta parlamentarioa (ik. PARLAMENTARISMOA) onartzen zutenak adierazteko (Alderdi sozialistak). 3) *Mugimendu sozialistaren baitako eztabaidekin, sozialismo kontzeptuak mehartzu segitu du: II. Internazionala puskatu eta mugimendu sozialista erdibitu zenean, sozialismo kontzeptua **komunismoari** edo eta ***marxismo-leninismoari** kontrastatuko zaio eta, hein honetan, *Mendebaldeko *sozialismo demokratikoa adierazi ohi du, eredu soviatarren jarraitzaileen kontra. Gaurko usadio

arruntean, esangura hau izaten du Mendebaldean sozialismo kontzeptu soilak. 4) Une berean, komunismoari kontrajarrita orobat, baina baita sozialismo demokratikoari ere, komunistek berek esangura espezifiko batetan ulertuko dute sozialismoa, «gizarte komunistaren lehen epe» gisa. Estatuok beren buruak sozialista izendatu dituzte ofizialki (a.b. *SESB). 5) Praxi ezberdinen arauera, eredu edo sozialismo diferenteak bereizten dira: sozialismo sovietarra, jugoslaviarra, suediarra, etab. sozialismoaren experimentu ezberdinak daudela adierazteko. 6) Azkenik, tradizio eta teoria sozialista europarretatik aparte aurreratu den zenbait Estatu ere sozialista izendatu ohi da, *Hirugarren Munduan batik bat, horietako «sozialismo» bakoitzari praxi eta edukin guztiz ezberdina ohi dagokiola: sozialismo afrikarra, asiarra, sozialismo algeriarra, Nasseren sozialismoa etab. Hein honetan, *feudalismo, *kolonialismo eta *inperialismo kontzeptuei kontrajartzen zaie. 7) Azken denboran, Mendebal Europako zenbait Estatutan partikulariki, sozialismo «Sozial-demokraziari» kontrajarri nahi izaten zaio, sozialistak eta «sozial-demokratik» bereiziz, baina, historikoki behintzat, nekez zuzenets daiteke kontrastapen hori.

B) Kontzeptuaren adierazkizunez, historiari aplikatua

Sozialismo kontzeptua historian zehar aldatuz doala gogoan badugu, sozialismo, komunismo, anarkismo kontzeptuak historikoki zailak dira bereizten, denak *mugimendu bat beraren zati bezala ageri baitira eta elkarrekiko eragintza etengabea; historiari gagozkiola, orobat, fenomeno txit ezberdinak hartu ohi dira nolabait sozialistatzat.

1.- Mugimendu aitzindariak

a) Lehen gizarteen sozialismoa (edo *komunismoa), artzain eta laborrari-gizarteen *jabetza komunalak batik bat, haren ondorioak oraindik ere nabari baitira (herri-basoak, partzoneria), tradizio sozialistaren iturburu *autoktonotzat hartu izan da sarri (horrela, frantses, aleman, errusiar, euskal sozialismo jator batik bat aipatu izan da). Jatorrizko sozialismo omen delako horrek inportantzia handia jokatu du *propagandan. b) Sozialismoaren tradizioan sartu ohi dira, orobat, zentzu zabalean, Israelgo tradizio profetikoa, *Platonen Errepublikaren kontzepzioa (gubernarien *kastarentzat ondasun eta emakume-komunismoa proposatzen baitzuen) eta, batez ere, lehen kristauen komunismo delakoa. c) Erdi Aroan ugari dira, ebangelioaren izenean ideal komunista predikatu duten *mugimendu erlijioso-sozialak (kataro/albigense, valdense, etab.), bereziki frantsizkotar eskolatik adaskaturiko anaiartetan (fraticelli, spirituali, poveri...). Euskal Herrian, holako foko bat, Durangon aurkitzen dugu XV. mendean. d) *Erreformatik atzera indarberritu zituen mugimenduok (Wiclif, Huss); guztien artean Th. Müntzer eta anabaptisten komunismoa na-

barmendu da. e) Erdi Aro osoan zehar, laborari-*errebolta edo **Jacquerie** gutxi-asko erradikalak edonon kausitzen dira European (Euskal Herrian *matxinadak, *Matalas), nahiz ez denak neurri berean izpiritu kolektibistak animatuak izan. f) Errenazimentuak, halaber, ideia kolektibistak indartzen ditu berriro, XV-XVI. mendeetan hiru *Utopia haundi aurkitzen baititugu Aro Modernoari atea zabalduz: Th. Moore-ren **Utopia**, Campanellaren **Eguzkitar Hiria** eta Baconen **Nova Atlantis**. g) Ilustrazioaldian, ideiak arrunt zabaltzen dira «Estatu nobelen» bitartez, honez gero Zuzenbide Naturalaren teoriak konbinaturik (Locke, Hodgskin, Rousseau, Abbé Mably, Morelly, Deschamps...); horrela sozialismo modernoaren sorrera posible bihurtu da teoria politiko eta iraultzaile (ik. IRAULTZA) gisa. Babeuf-ek eta beste lehen sozialista modernoek Zuzenbide Naturalan oin hartu dute, hain zuzen 1793.eko Giza *Eskubideen Deklaraziorako 35. artikulua berentzat inbokatuz.

2.- Sozialismo modernoa

Lehen sozialista modernoa, kontzeptu horren egungo zentzuan, Babeuf (1760-1797) dateke, berarekin hasten baita «Lehen Sozialismo» edo «Sozialismo utopiko» ohi deritzana. Baina epe honetan oraindik zaila litzateke sozialismo terminoa zentzu garbian *komunismotik edo *liberalismo politiko erredikalenetik ere bereiztea. Sozialismo modernoak beti ere adiera diferenteak hartzen ditu, lehenik, bere historian zehar (ik. II. HISTORIA) eta, bigarrenik, eskolen arauera (ik. III. ESKOLAK). Baina, batez ere, sozialismo/sozialista kontzeptuak errealtate ezberdinei aplikatuak izan ohi diren neurrian (dela *mugimendu bati, dela teoria bati/batzuri, dela *alderdiei, dela *Estatuari), zentzua ere aldatuz doa.

Beraz: a) **Mugimendu** gisa, langile-mugimendu modernoari komunzki sozialista deritzo; baina, izen-usarioari bagagozkio, izendatu, *sindikatuak a.b., ez dira sozialista izendatu ohi, baina bai alderdiak, sindikatuak menpean hartzera jo izan baitute. b) **Teoria** sozialistak anitz dira, baina errealtate sozial guztiarekiko teoria orokor (edo *sistema oso) biribildue-na Marxena baita, teoriak iharduterakoan maiz berdintzen dira sozialismoa eta *marxismoa, nahiz hau txit era ezberdinetan interpretatua izan. c) XIX. eta XX. mendeetan, sozialismo kontzeptua geroz'eta gehiago izen eta sinbolotzat mehartuz eta alderdiek monopolizatuz joan da orobat: *anarkismoa, esate baterako, teori mailan betidanik sozialistatzat joa, mugimendu sozialistan lehen ordutik bizkor aritua, I. Internazionalan (ik. INTERNAZIONALAK) ofizialki integratua, II. Internazionalan baztertua gero, egun terminologikoki ez da sozialismo gisa kontsideratu ohi. d) **Instituzioen** mailan, azkenik, *Gobernu sozialista esan ohi zaie *Mendebaldean, beren politika nolana hikoia izan arren, *Alderdi Sozialistek osaturikoei; orobat, *Estatu sozialista (edo, komunzkiago, komu-

nista), Alderdi Komunistek gobernatuei eta *produkzio-ondasunak gehienbat nazionaldu dituztenei (Jugoslavia, Angola, Sovietar Batasuna) deitzen zaie, positiboki hori nola dagiten begiratu gabe, horrela produkzio-ondasunen *jabetzaren sozialtze juridiko soila (nazionaltzea edo propioki desjabetzea) sozialismoaren ezaugarririk nahiko eta oinarrikoena bailitzen agerteraziz, edo eta, negatiboki, jabetza pribaturik eza adieraziz.

Sozialisten artean beti egon dira *kontraesanak (sozialismoa ez da doktrina uniforme) eta bata besteari sozialista izena eta izana ukatzea aspaldikoa da sozialismoaren historian. Horregatik, sozialismo kontzeptuaren adiera guztiak dira eztabaidagarri bezain eztabaidatu, nola eta ez den definizio formal hutsen bat entseiatzen, edukinaren arreta gabe. Definizio positibo bat ezin harantzago hel badaiteke ere, sozialismoa, formaliki, jabetza-harremanak zentzu kolektibista (ik. KOLEKTIBISMOA) batetan berrerratzeko printzipioa dela esateak baino, agian, definizio negatibo baten garbitasun handiagorik eman lezake, sozialismoa *kapitalismoaren ukoa den aldetik definituz. Sozialismoa, kapitalismo aldian sorturiko mugimendu eta teoriaren bilduma da, guztion helburua, *klaseko gizarte kapitalistak sorterazi duen *arazo sozial espezifikoa, kapitalismoa bera gaindituz, konpontzea delarik.


3.- Gaur egungo kontzeptu-bereizkuntzak

a) ***Komunismo** kontzeptua, jatorriz, sozialismoarena bera da edo eta, *gizartearen azken egoerari begiratzen diola, zabalagoa, han («bakoitzari bere premien arauera») ez baita inolako *jabetza-nagusitasunik eta *zapalkuntzarik egongo. Sozialismo kontzeptuak berez ez du azken egoera definitibo hartaz deus adierazten. b) ***Anarkismoa**, sozialismo edo komunismo-era espezifiko bat da (baina komunismoa bera ere gainditzekotan), batez ere *marxismoari *oposizioan aurreratua, *Estatu eta *Botere kontzeptzioan eta *iraultzaren subjektuarenean (industri *proletalgoa ala explotatu oro batera) baitatza Marxekiko diferentzia nagusia. c) ***Sozialismo demokratikoaz** (ik. III.- ESKOLAK). Errealitatean, sozialismoak, komunismoak, anarkismoak, daude; hirurotako bat ere ez da bakarra ez eta bakuna bere baitan.

II.- Historia

Sozialismo modernoa 1800 aldera, *proletalgo modernoaren sorreraz, hots, industri *iraultzaz, abiatu da eta, gainbegiratu historiko labur batek ageri duenez, hiru alditan banaturik azal genezake (ik. 16.ESK.).

a) Han-hemen sakabanaturik hasten da (Ingalaterran, Frantzia, Alemanian), eskola bako-



«16. Esk.- Sozialismoa: historia»

tza bere aldetik; lehen aldia Frantziako Erreboluziotik 1848.era doa («Iraultza bien arteko sozialismoa»); Frantzian du bere ardatza.

b) Naziobarneko nahiz nazioarteko sozialismoaren batasun teoriko eta organizatiboa lortzen da poliki-poliki *marxismoaren inguruan: *Internazional biren aldia da hau, Lehen *Mundu-Gerlararte doana eta Alemaniak jokatzen du paper inportantea.

c) Batasuna galtzen da, berahalaxe marxismoa puskatzen delarik (ortodoxoak, errebisionistak), gero *mugimendu sozialista ere bai (sozialismoa, komunismoa) eta, azkenik, komunismoa bera: luxemburgismoa, *trotskismoa; (Sovietar Batasuna, Jugoslavia, *Txina), Sovietar Erreboluziotik (ik. IRAULTZA) egunotararte datorrena da. Hemen *SESB da protagonista.

Euskal Herriaren amorez, beste laugarren aldi bat llabur-llabur aipatuko da atal honen azkenean. (Ik. II. C. 4).

A) Hasierako sozialismoa

Lehen teorilari sozialistek (ik. III.- ESKOLAK, A ETA B), Babeuf, Saint-Simon, Fourier, Blanc, Owen eta bestek (Marxek gero «utopiko» deituek), *sistema ezberdinak bururatu zituzten; *ordenu berri baten aldarrikatze teoriko moduan, ez *proletalgoaren *ideologia espezifiko gisa (Engels: beren buruetatik atera nahi zuten sozialismoa). Langile-mugimendua, teoriotatik aski aparte, izaera anti-industrialez sortu da: «makina txikitzaileen» albaramenduak Ingalaterran (Luddismoa), Silesiako ehuleen *erreboltak Alemanian, etab. 1840. urteetan, *langileria *klase kontzientziara helduko da eta bihurrialdi espontanioetatik edo konspiratzaileen *erakundeak asmatzetik klase-erakundeetara iragan da. Beren tradizio diferenteen arauera, beti ere gogorkeriazaleago agertu da Frantzian eta latindar lurraldeetan, demokratikoago Ingalaterran eta, gero, lurralde anglo-saxoi, germaniar eta eskandinaviarretan. 1848.eko Otsailko *iraultzak eta Ekaineko Altxamenduek garbi darakusate, jadanik langile-mugimendu sozialista organizatu bat bazegoela, proletal mugimendua, teoria sozialista eta organizazioa bat egiten hasiak baitziren (Frantzian Blanc, Ledru-Rollin, Albert; Alemanian «egiazko sozialistak», Engels, iraultzotan ibiliak dira); baina erakundeok birrinduta gelditu ziren erabat, mugimendu sozialista, halaber, urte batzuetarako hautsita geldituz. Urte honetan argitaratzen da Marx-Engelsen *Manifestu Komunista. Oraindik hasieran dabil industrialtzea; mugimendu, teoria eta organizazio sozialistak ere bai. 1848.eko iraultzek bai hasierako sozialismoaren eta bai hasierako liberalismoaren hondamendia ekarri dute. Vienako *Kongresuaren *Estatu feudal berrezarria xahutu eta Estatu liberal modernoa eraikitzen da, *liberalismo nazionala alegia (estatala). Aurreantzean *nazionalismoa bihurtuko da Europako *ideologia nagusia, Marxek gogor burukatu beharko duena. Sozialismoak hasiera berri bat entseiatu beharko du teoria nahiz organizazio-molde berriz. Ideia sozialisten eta proletal mugimenduaren lotura garbia Proudhonek eta Marxek lortu zuten lehenengoz.

B) Bi internazionalak (ik. INTERNAZIONALAK)

XIX. mendearen bigarren erdian gorpuzten dira langileen lehen *masa-erakundeak (*sindikatuak, *alderdiak), horien artean **I. Internazionala** (1864-1872) inportanteena izanik. Langile-mugimenduan eragintza duten teorilari nagusiak, hasierotan, ezberdinak eta bata bestearen kontrarioak dira oraindik: Proudhon eta Bakunin latindar lurraldeetan (ik. ANARKISMOA), Lasalle Alemanian (ik. III: ESKOLAK, A. 5), Ingalaterran *sindikalismoa (Trade-unionismoa) finkatzen dira (ik. III: ESKOLAK, A. 7), etab.; *nazioarteko *langileriagan oraindik txikia da Marx-Engelsen eragina. I. Internazionala (joera ezberdinetako jende eta zirkuluen konfederakuntz lazo bat zen, batez ere pertsonalitateen bilkura bat) bere baitako hasarreek hondatua zuten, Marx eta Bakuninen artekoek bereziki, langile-mugimendua ere zatibanatuz.

1863.ean Lasallek Alemanian sortu zuen *Alderdiak, langileak Alderditan organizatzen hasten dira (Blanc-ena Frantzia 1848.ean suntsitu baitzen). Propioki langile hutsen erakundeetan ez bezala, Alderdi sozial-demokratikoetan *marxismoak indarra hartzen du. *Anarkismoa bazterturik (1896.ean ofizialki gaitzetsirik haiekiko edozein lankidetz) eta Alderdi Sozialista alemanak zuen *hegemoniaz, II. Internazionalan (Alderdiez osatua eta, hain zuzen, *legalez eta parlamentarioez bakarrik) *marxismoa inposatu zen. 1873.etik aurrerako depresio eta *krisi larriek, Marxen *kapitalismo-azterketak (krisi-teoria) eta iragarpenak (barne-*kontraesanek eragindako hondamendia) betetzera zihoazela sinestertzuten zuten. II. Internazionalako Alderdi marxistak zain-zain zeuden, *kapitalismoak laster lur jo zezanean, *boterea berek eskuratzeko (Engelsek: mendea bukatu baino lehen). Baina 1896.ean, ekonomia, zapart egin ordez, sendotzen eta bortizki hedatzen hasi zen lehen *Mundu-Gerrararte iraungo zuen hedakuntzan, urruneko *lurralde atzeratuak berak *merkatuan bilduz. Agonian uste zenaren ustegabeko birbizte honek, Marxen azterketa (**Das kapital I**, 1876) «berrikustea» edo eta «osatzea» eskatzen zuen, *kapitalismoaren natura eta bere baitako *krisiak gaintzeko gaitasuna, egoera berriaren arauera zehatzago explikatzeko. Honela sortu ziren bi joera: alde batetik *inperialismo (kapitalismoaren maila gorena) teoriak (Hilferding-Kautsky; R. Luxemburg-Lenin) eta, bestetik, errebisionismoak (fabianismoa, austro-marxismoa, etab., Bernstein bereziki), kapitalismoaren «maila berria» argitu nahiz (ik. III: ESKOLAK, A 9 ETA 11). 1907.ean bi joeratan erdibitu zen II. Internazionala, bien bitartean hirugarren hegala bat bizkortzen hasi zelarik: komunismo ezkertiarra (R. Luxemburg, Parvus, Pannekoek, Sorel), bi Mundu-Gerren artean paper inportantea jokatu zuena, gero galdua eta azken urteotan berriro, sail minoritarioetan, indarberritua (ik. III: ESKOLAK, A. 12.).

Epe honetako hauzi teoriko nagusiak (sozialisten beren artean): 1.- Marxenak, Bakunin eta Proudhon «utopikoen» aurka; 2.- Marx ondokoak: marxismoaren ortodoxia/erebisionismoak,

sozialismo demokratiko iraultzailea, *kapitalismoaren naturaz eta *bilakabidearen legez; austro-marxismoak *nazio-arazoaren lehenengo azterketak egiten ditu. XIX. mendearen azkenetan *Euskal Herrian abiatu zen sozialismoak (ik. SINDIKALISMOA EUSKAL HERRIAN), aldiz, nazio-arazoanako axolarik ez zuen batere.

C) Sovietar erreboluzioaz gero

Sozialismoaren historian biragune erradikalena dakarren soviatar Erreboluzioaz (ik. IRAULTZA) gerozko sozialisten eta komunisten elkarrenganako etsaigoak ezaguterazten du hirugarren aldia (ik. *SOZIALISMO DEMOKRATIKOA, MARXISMO-LENINISMOA, KOMUNISMOA, TROTSKISMOA). Sozialismo demokratikoari *oposizioan, 1918.eaz gero *nazio guztietan sortzen diren Alderdi Komunistekin, *mugimendu sozialistaren erdibikuntza kontsumatzen da, aurrerantzean sozialismoaren burruka gogorre-na barrukoa izango delarik. Sozialisten II. Internazionalari (ik. INTERNAZIONAL SOZIALISTA) buruz-buru, 1919.ean *Komintern edo III. Internazional Komunita (ik. INTERNAZIONALAK) muntatzen da, 1943.ean Stalinek banatua, haren orde, *Kominform edo Komunisten Informazio-Bulegoa sortzeko, jugoslaviar etenduraren ondoren (ik. III. ESKOLAK, C, 4 TITTOISMOA) 1953.ean desegingo dena. Harez gerozko historian, sozialismoaren garaitzapen/haustura fenomenook dirateke garrantzizkoenak (ik. III. ESKOLAK, SOVIETAR ERREBOLUZIOAZ GEROZKO ESKOLAK):

1) Leninismoaren garaitzapena eta haustura, Stalin eta Trotskyren arteko burrukak sortutakoa, honela IV. Internazional trotskystaren sorrera (ik. TROTSKYSMOA) ekarriz.

2) Sozialismo-era bien ezarpena *boterean, *komunismoa Eki-Europan eta *sozialismo demokratikoa Mendebal Europako *gubernuetan, *trotskysmoa mugimendu minoritario bilakatzen delarik. Bi era hauen arteko erabateko antagonismoak, sozialismoaren *aurrerabidea kolapso batetara darama nolabait, *Ekialdean sozialismo-era ez-leninista oro likidatzen delarik eta *Mendebaldean sozialistek eta komunistek amorratuki elkarren artean burrukatzen dutelarik, *faxismoaren aurrean ere batu ezinda.

3) Komunismoaren zabalkunde garailea *Hirugarren Mundua eta geroxeago ortodoxia soviatarren haustura anizkuna (Jugoslavia, Txina, Txekoslovakia, *eurokomunismoa). Honez gero Alderdi sozialistek nahiz komunistek, zuzenean ala zeharka, boterean partehartzean, sozialismoa eta *interes nazionalak maiz nahastu egiten dira; areago, mundua bi*bloke militar, ekonomiko eta politiko etsaitan erdibiturik dagoenez gero, sozialismoak sarri blokeko interesekin bat egin eta berdindu behar izan du alderdi bietan, biotan *sistemaren kontserbatzaile bilakatuz.

Corabehera teoriko inportanteenak hauexek dirateke: Marxen interpretazioa eta balioa mugimendu sozialistarentzat; *kapitalismoaren erreforma eta bakezko gairagarratasuna, ala

*bortxazko *iraultzaren beharra; *Estatu-kontzepzioa (*demokrazia, proletalgoaren *diktadura) eta sozialismoaren subjektua nor den edo *Alderdiaren kontzeptu leninistaren arazoa (ik. MARXISMO-LENINISMOA), *merkatuaren eta ekonomia zentralki planifikatuaren arazoa (nazonaltze/sozialtze zuzen ala zeharkakoak); *inperialismoa eta *Hirugarren Mundua; *bizikidetasun baketsua, desestalinizazioa, neomarxismoa eta Ezker Berriak.

4) Hasieratik eta luzaro burruka-mugimendu herritarra izan zen sozialismo hura eta gero, tresna gisa, burruka-*erakundeak asmatu zituen, orain, gehien gehienbat erakunde haiekin -*alderdi, *gobernu, *Estatu-berdintzera etorria da, mugimenduaren zabaltasuna eta sozialismoaren kontzepzioa bera mehartzuz. Erakunde bihurtu den horren alboan, beraz, sozialismo ofizialen historiatik kanpora, eta hein batetan haren kontra, sozialismo klasikoak zabartu zuen zenbait eskabidek egun izaera sozialista hartu du, sozialismoaren zentzu klasiko hura, sozialismoa langile-arazoaren alde hutsetik eta hura ere zentzu hertsian ulertu nahi zuena, eremu berrietara zabalduz: *arrazismo eta bereizkeriaren aurkako burruka, emakumearen emantzipazioa (ik. FEMINISMOA), burruka ekologista (ik. EKOLOGIA POLITIKOA), etab., *gutxiengo zapalduen eta baztertuen *askatasun-mugimenduak, eta batez ere nazio txiki zapalduen *independentzi burruka, hain zuzen sozialismoaren eskabide gisa ulertuz alegia. Europan, batik bat, eta *Hirugarren Munduko burruka anti-inperialistaren gisara, *Estatupean zapalduarik egon diren *gutxiengo nazionalek beren *nazionalismoari zentzu sozialista ematera jotzen dute gaur, *nazio eta *kalsearteko burrukara eramanez (ik. BREST-EKO KARTA, GUTXIENGOEN ESKUBIDE-KARTA, ALGER-EKO KARTA). Euskal Herrian, Ipar nahiz Hegoan, lehengo aldiz *abertzaletasun sozialistak burua jasotzen du, *ETA-rekin batez ere, edo haren inguruantsu, bai abertzaletasun eta bai sozialismo tradizionalekin lehiaketan.


III.- Eskolak

Leku, denbora, *kapitalismoaren *aurrerabide-maila eta kontzeptu politiko ezberdinen arauera formulatua izanik, sozialismoak non eta noiz, aurrerabide eta teorizazio ezberdinak ikusi eta ikusten ditu (ik. 17, ESK.).

A) Sozialismo etikoak

1.- Hasierako sozialismoa.

Izen honekin («utopiko» izen polemikoa guztiz desegoki baitator-
kio) teorilari sozialista edo komunista multzo ezberdin bat bildu ohi da,



«17. Esk.- Sozialismoa: Eskolak»

kapitalismoaren aurrerabidearen hasieran eragikor ibili zena. Hasierako sozialismo frantsesa (Babeuf, Saint-Simon, Fourier, Cabet, Blanc...) eta ingelesa berezi ohi dira (hasierako chartismoa, Owen eta ekonomistak: Hodgskin, Thompson, etab., *lanaren balioaren teoria landu zutenak). Arrazoi etiko eta demokratikoetan oinarritu zituzten beren eskabide sozialistak (= sozialismoaren beharra). *Gizarte berri sozialista eratzeko moduaz, asmo kontrarioak aurkitzen dira: nekazalgoak izan behar duela gailen (Babeuf, Fourier; joera anti-industriala), industriak (Saint-Simon); *jabetza oro xahutu (Babeuf), mugatu eta kontrolatu (Saint-Simon), *berdintasunez banatu pobreen artean (Cabet); *Estatua izanen da produkzio-ondasunen jabe bakar eta *produktzioaren gidari (Babeuf); Estatuak langileei emango die *jabetza, produkzio-plan orokorra Estatuaren esku geratuz (Bucheze, Blanc); jakintsuek gidaturiko plan baten arauera, Estatuak kontrola eramanez, antolatuko da produkzioa (Saint-Simon), langileek berek asmatuko dituzte beren produkzio eta kontsumo-elkar-teak, Estaturik batere gabe (Fourier eta tradizio kooperatibista-mutualista, gero anarkista)... *Gizartea erro-errotik aldatu beharra guztiek uste izan arren, gizarte berria batzuk *iraultza bidez espero zuten (Babeuf,

Blanqui), gehienek *erreforma sakon, segitu eta *eboluzio demokrati-koen bidez. Hasierako sozialisten ideiak eragikorrenik Frantzian izan dira beti ere; XIX. mende erdiaz gero *marxismoak ia ahantzerazi izan bazituen ere, XX. mendearen hasieratik aurrerantz haien balioa atzera berraurkitu da (emakume-mugimenduaren arazoaz, *askatasuna eta *demokraziarenaz, etab.).

2.- Sozialismo erlijiosoa

Sozialismo modernoa, bai helburuak eta bai oi..arriak finkatzera-koan, erlijioan sostengu hartuz abiatu da. Hasierako sozialismoan bada korrante erlijioso bat (Lammenais, Abbé Constant, Pecqueur), Saint-Simonisten eta Fourieren segizioan. Baina, eskola gisa, zentzu hertsian, «Sozialismo erlijioso» izenez, lehen *Mundu-Gerraren ondoko Ingalate-rrako, Suitza, Holanda eta Alemaniako *mugimendu erlijioso-sozialista erradikal bat izendatu ohi da. Zentzu zabalagoan, beren fedea eta sozia-lismoaren teoria nolabait elkartu dituzten mugimendu sozialista fededun moderno guztiak dira: protestanteek batez ere ebangelioan eta lehen kris-tauen «komunismoan» abiapuntu hartzen badute (Kutter, Ragaz), kato-likoak, ebanjelioan adina Zuzenbide Naturalaren teorian oinarritu izan dira, edo eta *pertsonalismoan gero; Joanes XXIII. az geroz, Hego Ame-rikan bereziki, *marxismoa bera integratu da pentsabideotan. Anglika-rrentzat Elizaren «Kristoren Gorputz» ideiak bete du eginkizun sozial hori. Lassalle, Marx, Bernstein, Rosa Luxemburg, Trotsky... juduak izan dira.

3.- Gizatiar sozialismo

Lehenik sozialismo etiko edo humanistaren (edo neokantiarren) ezinbestekotasun ekonomikoaren teoria baztertuz, edo haien aldean, so-zialismoaren alde motibazio moralak aurreratu zituzten joerei deitu zi-tzaien (Bernstein eta austro-marxismotik Jaurès-en demokratismo eta So-relen ezker-komunismoraino), hots, sozialismo demokratikoari zein anarkosindikalismo «boluntaritari». Gero, komunisten artean, desestali-nizazioa (ik. STALINISMOA) sakonduz, eskabide demokratikoak altxatu dituzten eta *boterea obligatzeko balore-sistema moral sozialista labora-tzen saiatu diren teoriariei esan ohi zaie humanista; edo eta horien segi-zio antzeko mugimenduei («Pragako udaberri»ari, a.b.). Althusser-ek, esangura partikular eztabaidatu batetan, zientifikoak eta humanistak kontrastatzen ditu, haren ustez humanistek sozialismoaren teoria zientifi-koa zabartzen edo *ideologiaz (ez zientifikoaz) nahasten omen baitute. Propioki humanista deritzan eskola bat ez dago; joera bat da.

4.- Anarkismoa

*Anarkismoari sozialismo etiko deritzote, beren buruari zientifiko zeritzoten eskolen kontrastez ulertu izan duenez gero berak bere burua, a) *iraultzak eskolatuak ezin pribiligia ditzakeelako (Bakunin), b) haren iraultza kontzeptuak plan tekniko-zientifikorik onartzen ez duelako (Sorrel: bere izatez, arrazoimena erreformista da) eta c) «erraien iraultza» (D. Guérin) nahi duelako, isuri bakoiztiar barrenkorrenen arauera. Hain zuzen «sozialismo zientifikoekin» burrukan ibili da beti anarkismoa.

B) Sozialismo zientifikoak

1848.eaz gerozko eskolei «zientifiko» baderitzegu, izen-modu hutsa besterik ez da -Marxek bere metodoari, aurrekoen kontrastez, hala baitzeritzan- eta ez du inola ere adierazi nahi lehenagokoak azientifiko zirenik.

1.- Estatzko sozialismoa

Eskola aleman bat da (Bakuninek I. Internazionallean gogor burrukatua), eskola gisa jadanik itzalia, baina ondoriorik utzi duena, Fichtek errebindikatu bezala, *produkzioa zein produktuaren banaketa zuzenean *Estatuaren esku ezarri nahi zituena, honek tekniko eta zientifikoki hura administra zezan. Izen propio gisa, 1870.eko eskola bati ohi zeritzan «Estatu-Sozialista», Rodbertusen teorian oinarritzen baitzen. Zentzu zabalagoan, Lassalle ere korronte honetan sartzen da.

J.K. Rodbertusek (1805-1875, ekonomista, sozialista *kontserbadorea) igarri zuen, aurrebide soziala ez dela *sistema diferenteen kateapen segitu bat besterik, eta *kapitalismoa, bere enpresa eta kapital-kontzentrazioz, katearen maila bat dela sozialismora iragateko, hots, egun batez etxalde, ondasun eta kapital oroz *Estatua jabetzeko. Bere erritmoan doan prozesu baten buruan gertatuko da hori. Bitartean Estatuak ararteko egin eta bizitza sozialean zeharbidez eskuhartu behar du, ekonomiaren berezko legeak errespetatuz halere, *lan-baldintzak zainduz eta alokairuak zuzenduz.

Estatu Sozialistan, kapitalisten menpetik askatuta, langilea bere enpresari bihurtuko dela, esaten du Lassallek (1825-1864). Horretarako, *iraultza behar; iraultzak, ordea, bere erritmo objektiboa darama eta ez dago, haur egitean emaginak bezala, erraztea edo eragozte besterik. Erraztu, zientzia eta *proletalgoaren *ekintza iraultzailea elkartzeak bakarrik erraz lezake iraultza (hots, langileak beren enpresari bilakatzea). Hori ez dago iristerik, langileek, kapitalistekin lehian, beren *kooperatibak asmatuz (Owen, Fourier, etabarrek entseiatu zutena). Orduan, kapitalistekin *konkurrentzian Estatuak berak sartu behar du, haiek beren harmekin, beren joko arauetz eta legez, menderatzeko, ez berak kooperatibak sortuz (Blanc-ek nahi zuena), baina kreditu bidez langileak libreki kooperatibetan beren enpresari bilakatzea ahalbidetuz, era horretan *kapitalismoari gain hartzeko. Horretarako, aurrenik langilegoak Estatuaz behar du jabetu, hori *hauteskunde-bidez egin baitaiteke Lassalleren ustez. Hasteko, bada, *langileriak Alderdi politiko bat aparte osatu behar du: Lassalle da lehenengo Alderdi politiko proletarioaren sortzailea. Alderdi honek beste guztien sorrerarako eredu gisa zerbitzatu zuen, eta iraultzarako baldinkizunak heldu arte *proletalgoak Estatuan Alderdi lege politikoki jokatzeko moduz Marxek positiborik deus gutxi esan zuenez gero, Lassalleren eragintza, Estatu barruan legalki jokatzeko duten Alderdi guztien gainean, zabala bezain sakona bihurtua da, Alderdi sozialista demokratikoetan bereziki.

2.- *Marxismoa

Antonomasiaz «sozialismo zientifiko» deitua. Marx ondoko eskola guztiak harekikoan aurreratu baitira, haiek ulertzeko beharrezkoa dirudi puntu batzu xehekiago erakustea, arazoak nondik sortu diren bakarrik begiratzuz.

Marxismoak ere iraultzaren teoria zientifikoa izan nahi du. Enpeinu honetan, tradizio ebo-lutibo eta iraultzailearen artean lekuhartzen du Marxek, ordurartean sozialismoa bi korronteotan banatzen baitzen, bion sintesia entseiatuz: alde batetik kontzientzia edo *ekintza iraultzailea eskatzen da eta, bestaldetik, iraultzarako baldintza objektiboen heldutasuna. Objektibotasun hori, iraultzarako ordua alegia, prozesu (*eboluzio) ekonomiko baten buruan bakarrik ematen da. Marxen hipotesiak postulatu duen sintesi hau, praxian ez da egiaztatu. Iraultzaren moduaz nahiz puntuaz, Marxen uste pertsonalek huts egin zutenez gero, haren interpretazioak (hots, *bilakaera sozialaren interpretazio zientifikoa) bide ezberdinetatik joan dira. Lau puntutatik sortu dira nagusiki diferentziak: a) **Historiaren ikuspide materialista dialektikoan**, edo sozialismoa zientifikoki oinarritzeko metodoan, diferentziak sortu dira: 1.- **materialismoaren zentzuaz** (hots, gizarte-bizitzak naturarekiko duen kide-tasun materialistaz edo determinismo historikoaz: honela, Kautsky, Lenin eta Stalinen materialismo ontologikoa ezetsi dute ezkerretik Pannekoek, Korsch, etabatrek, eskuinetik ia denek; berrikiago, Leninen «kontraespiladuraren teoria» epistemologikoa arrunt ar-buiatu da orobat), eta 2.- halaber **dialektikaren** balioaz eta moduaz (metodo dialektikorik natur zientziatarako ba al dagoen ala ez, edo eta, «Engelsen arazoa»; gizarte-zientzietan ere, Bernsteinez gero, haren anbiguitateaz eztabaidak daude); b) *Produktzio-modu kapitalistaren azterketetan, edo **teoria ekonomikoan**. Beraz, bai *klase-teorian eta bai *krisi-hipotesian, eskola sozialistak zati-banatu egin dira, ez Marxek iragarritako polarizazioa bi klase muturretan eta ez *kapitalismoaren azken krisia eta amilera sortu baitira, sozialismoaren puntua kapitalismoaren barneko legeek berek nahitaez ekarritakotzat agertaraziz. Honela, alde batetik, teoria «errebisionistak» sortu dira, kapitalismoaren gaindiezinezko barne-kontraesan eta, azkenean, ezinbesteko «katastrofe» batekin kontatzen ez dutenak jadanik; bestetik, Marxen hipotesi hari eusten diotenak daude («katastrofe-teoriak»), *inperialismo- (kapitalismoaren maila gorena) teoriarekin hura osatuz, baina ezberdinak eta beren artean elkarren kontrakoak. Arazoa, bada, bikoitza da: 1. **Printzipiozkoa** edo teoriko-zientifikoa, kapitalismoak nahitaez bere barrutik porrot egin beharra ba al daukan ala ez; 2. **Politikoa**, alegia; c) Ondorioz, **teoria politikoan** sortu dira diferentziak: sozialistek nola jokatu behar dute justu momentu honetan, kapitalismoa orain dagoenean egonda (beti berdina ez baitago eta, beraz, harekiko ere ez baitago beti joko bera egiterik). Marxen arauera, iraultz unean erreali-tate sozial-ekonomikoa eta kontzientzia iraultzaileak bat egingen lukete: alegia, objektiboki kapitalismoa superproduktzio eta subkontsumo extremuetara ailegaturik aurkituko litzateke, subjektiboki *proletalgora kontzientziaturik, produktzio-harreman zeharo berriak eraiki eta gidatzeko. Kointzidentzia hura inoiz era honetan eman ez denez gero, alde batari ala besteari, (hots, baldin-tza ekonomikoaren berezko ibiliari ala *ekintza-posibilitate iraultzaileei), gehiago begiratzeko dioten neurrian, sozialistak demokratiko-erreformista eta «abangoardia iraultzailearen» aldezkarran banatu dira (ik. MARXISMO-LENINISMOA); d) **Alderdi** eta **Estatu** teoriari buruzko diferentziak dira ondorioa, Marxek bioz oso gutxi esan zuen eta.

3.- Fabiandar sozialismoa

Ingalaterran 1884.eaz gero aurreratua, harez gero eragin handia izan du sozialismoaren historian, erreformismo, errebisionismo eta sozia-lismo enpiriko, demokratiko guztien inspiratzaile gisa. (Hanibali eraso-tzeko egokiera on bati egonarritsuiki itxaroten egon zen Fabius jeneral erromatarrarengandik dauka izena; intelektual sozialistak biltzen ziren **Fabian Society** zelakoan). Marx orokorki mintzo da: historia guztiaz, *kapitalismoaz beraz eta haren naturaz, mundu osoaz, lege unibertsalez; fabiandarrek, bada, kapitalismoaren barneeneko naturaz edo lege uni-

bertsalez azken gabeko eta soluzio garbirik gabeko eztabaidak utzirik, beste zientifikotasun-molde bat entseiatu nahi zuten, Ingalaterrara eta *mugimendu sozialistari sortzen zaizkion aldian aldiko problema konkretuetara mugatua, enpirikoa. Zientifiko erradikal izan nahiz, marxismoaren teoria orokorretatik aldendu eta «sozialismoa aldi aldi egingarria» estudiatu nahi dute. Sozialismoak, horientzat, *plangintza sozial kolektiboa esan nahi du, *udaletako sozialismoari eta *sindikalismoari inportantzia haundiena emanez. Sozialismoaren zientiazkotasunak, utopismo eta dogmatismo guztien kontra, *gizartearen eraldakuntza gradual bat, tekniko eta pragmatikoa lekarke. Teorilari inportanteenak: G.B. Shaw eta Webb biak. Erreformismotzat kontsidera daiteke.

4.- Sozialismo erreformista

Ia beti batera aipatzen badira ere, erreformismoa (ik. ERREFORMA) eta errebisionismoa, historikoki, bi agerkizun ezberdin eta aparteko dira. Erreformismoa joera parlamentarista (ik. PARLAMENTARISMOA) bat da, historia unibertsalaren teoria orokorrez asperturik, *gizarte kapitalista suntsitu arte itxaron gabe, oraintxe bertotik *langile-klasearentzat abantaila partzialak legalki irabazi nahi lituzkeena; mendearen hasieretan erreformismo zeritzanak, *masa-ekintzak arbuizaten zituen, berezko *aurrerabide sozio-ekonomikoa nahastu besterik egiten ez omen zutelako eta lan politikoa trabatu. *Sindikatuekin bat zetorren. Erreformismoa, dogmatismo teoriko hertsienaz eskuz-ezku joan daiteke (*sozial-demokrazia alemanean halaxe zihoan eta errebisionisten kontra biziro enplegatu zen). Haatik, errebisionismoa teorikoago da, erreformismoak pragmatiko huts izan nahi du: ez du doktrina propiorik, praxi bat da. «Eskolastika» marxistaz asperturik, zientifikoki segurutara eta enpirikoki egiztagarritara mugatu nahiz, teoria orokorren bati gaino jaramon gehiago egiten dio arazo bakoitzaren eta aldi aldi egingarriaren azterketa eta programaketari.

5.- Sozialismo errebisionista

Marxen *kapitalismo analisisa «berrikusiz», bai Kautsky eta R. Luxemburg, eta bai Leninen aurka sorturiko eskolek osatzen dutena. Geroago, Leninen eragintzaz, Kautsky ere errebisionisten artean kontatuko da, soviatarren tankerako *iraultzarik onartzen ez zuelako. Azkenik, sozialista demokratikoei komunistek errebisionista ohi deritzete; komunistak diferentek, halaber, bata besteari (Txinatarrek soviatarrei, a. b. eta alderantziz), etab. Mila aldiz iragarritako kapitalismoaren hondamendia ez dator. Joerak sortzen diren bitartean, zer egin? Alderdi sozialistak *botere-faktore bat bilakatuak dira eta sarri beraien esku dago Alderdien arteko arazoetan *parlamentuak zer erabaki. Egoera honetan, sozialistek zein **estrategia** eraman, Parlamentuko zein frakziori laguntza eman, etab., hortik datoz problemak, hortik errebisionismoak ere. (1899.ean Dreyfus arazoa zela eta, sozialistak lehen aldiz *Gobernuan partehartzera pasatzen dira, Frantzia, Millerand *ministrariarekin, alderdi burges liberalekin elkar hartuz eskuindarren *erasoaren kontra: «millerandismo» ere esango zaio errebisionismoari). Erreformismoak baztertu egin

duen teoriaren arazoari, buru egin nahi dio errebisionismoak. Egon, errebisionismo diferenteak egon dira (ezkerretik: anarkosindikalismoa jo duen Sorel-ena, etab.; eskuinetik, Jaurès, Mille- rand, Croce, Vandervelde, etab.), baina sistematikoena eta eragikorrena Bernsteinena (1850-1932) izanik, honena aipatuko da hemen, errebisionismo izena autonomasiaz beregandu zuena ere bera baita. 1899.ean agertu zituen Bernsteinek bere kritikak (**Sozialismoaren aurretiazkoak eta Sozial- demokraziaren eginkizunak** liburuan; autoreak begiraturiko itzulpen ingelesak, sintomatikoki, **Evolutionary Socialism** izena darama).

*Proletalgoaren masa-erakundeak hor daude: zer egin? *Estrategiare- na da problema. Beraz, *iraultzarena, hots: sozialismoa zientifikoki ezin- beste zko ote den, gizarte-aurrerabidearen legeen arauera; sozialismoaren zuzentasun teorikoa derrigor depauperazio eta katastrofe-hipotesitik de- pendete den ala ez, eta, *krisi-hipotesia okerra balitz, sozialismoak izate- ko arrazoirik ez ote lukeen. Zientifikoki, esango du Bernsteinek, ez dago probatzerik, kapitalismoa nahitaez porrot egitera doanik. Ez da bilakatu Marxek uste bezala (langilea ez da bizi geroz eta miseria gorriagoan, hots, «depauperatuago»; industria txikia, itzali beharrean, ugaldtu egin da; ber- din merkataritxiak eta erdiko klaseak (hauek, hortakoz, ez dira polari- zatu, ez eta kapitala esku gutxitan bildu ere: hori dena agintzen zuten «le- geak» sinpleegi formulaturik zeuden, hortakoz) eta, gainera, kapitalis- moak berezkoa du *krisiak izatea, baina zientziari eta mekanismo ekono- mikoaren ezagutzari esker, gizona gero eta trebeago da, prozesu ekono- mikoak kontrolatzeko eta gidatzeko. Aldiz, Estatua bera demokratizatu egin da eta *erreformak posible gertatu dira demokratikoki, *klasearteko antagonismoak ere leunduz. Beraz, ekonomiari bagagozkio, kapitalis- moak nahitaez laster lur jo beharra duela, bere krisi ugarietako batetan aurki lehertuko dela, ezerk ez du garbi probatzen. Sozialisten burrukaren funtsezko oinarria ezin izan daiteke hori. Burugabekeria da sozialistak lan horretan enpeinatzea. Oraindik probatzeko dago krisiek *langileria erradikaltzen dutenik ere, edo *proletalgoaren garaipenerako beste aban- tailarik ote duten ere; horiek suposamenduak dira, probatu beharrez- koak. Eta *aurrerabide ekonomikoa nola doan ikusten badugu, ilusioak besterik ez dira. Areago, materialismo historikoa (hots, sozialismoak gi- zarte-aurrerabide dialektikoaren derrigorrezko produktu eta, une berean, gizarte-moldakera zeharo berri berria izan behar duela), hau da, dialekti- ka kritikatzeko du; eta, zehatzago, *iraultza kontzeptua bera, edukin gar- birik gabekoa iruditzen zaiolako eta hegelianismoaren hondar kaltega- rria, azterketa enpirikoen ordez eraikuntza idealak egiteko ona soilki. Zientzia historiko enpirikoak, kausa eta ondorio kateak argituz, *eboluzio segitu eta organiko baten arauera kateaturik eta *bilakaera propor- tzionatua bakarrik hatzeman dezake aurrerabide historikoa; «jauzi koa- litatiboa» (iraultza dialektikoa) historian zer den, ilun eta subjektiboa da. Bestalde, kapitalismoa krisi gaitzen batetan hondatuko balitz ere, *prole- talgoa oraingo ez ingo litzateke arduratu *produktioaz, teknikoki ere ez bailitzateke gauza (Bernsteinek, noski, ez dio onerizten, proletalgoaren izenean, gidaritza «abangoardia» batek bere gain hartzeari!); baina, bere

*erakunde bortitzez *botere partzialik irabazi du eta *erreforma politiko eta ekonomiko sozialez *Estatua eraldatzen saia daiteke. Iraultza (progresiboa, ez dialektikoa), *langileria, poliki-poliki, Estatuaz jabetzea izango da. Oro har, bada, sozialistek *taktika bat asmatu behar dute, zeharoko garaipenari (kapitalismoa berez hondatzeari) begira egon ordez, joko demokratikoan garaitzeko; eta, beren *estrategian, nagusitasun politikoari begiratu behar diote eta ez zer izan daitekeen jakiterik ez dagoen «jauzi koalitatibo» metafisikoren bati. Prozesuaren buruan jartzen eta hura gidatzen saiatu behar dute, ez hautserazten.

Halere, errebisionismoa ez da teoria berririk, teoria klasikoan sortu den joera eta jokaera (postmarxista) baino. Erlatibismo bat da (tradizio marxistaren barruan). Bernsteinek -Engelsen adiskide min eta hark bere pentsamenduaren testamentari jarria- *Alderdiko marxismoa erlatibatu du, hiru maila filosofiko-metodologiko, politiko-estrategiko eta ekonomiko-analitikoaren loturak sistematikoki birplanteatuz; marxistatzat zeukan bere burua. Problema bat gelditzen da: sozialismoaren zientziakotasuna sozialismoa zientifikoki derrigor datorrela ez baldin bada, zerk oinarritzen du sozialismoaren beharra? Zergatik sozialismoa? Problema honekin propio austro-marxismoa enplegatuko da. Bernsteinek -atzera *anarkismorantz hurbilduz- giza borondatean oinarrituko du burruka sozialistaren bidezketasuna.

6.- *Austro-marxismoa*

Marxen teoriako bi hutsunerekin enplegatu da austro-marxismoa: *nazio-arazoaz (ik. AUTODETERMINATZEKO ESKUBIDEA) eta arazo etikoaz. Ortodoxia kontserbadorearentzat marxismoa teoria zientifiko hutsa zen eta ez zeukan zerikusirik problema etikoekin (Kautsky), horiek *gainegiturak baitira, aurrerabide ekonomikotik daudenak. Errebisionistentzat marxismoa funtsean zerbait etiko zen eta haren kategoria ekonomiko guztiek balorazio etikoa inplikatzeko zuten; sozialismo teoriaren balioa, aldiz, katastrofe-hipotesi eztabaidagarritik independente zen (Bernstein); *militanteentzat marxismoa batez ere justiziazko ideal baten adierazpena zen. Marx Adler, aurrerabide ekonomikoaren legeei eta sozialismoaren beharrezkotasunari inportantzia kendu gabe, hura, 1. etikaren eskakizunik ere badela eta 2. *klasearteko burrukan moral biren arteko burruka ere badela, entseiatu da erakusten. Klase-moral hutsaren ordez, giza moral orokorra, balore moral orokor eta edozein *sistematan obligaziozkoak azalduz, (erabateko) klase-antagonismoa erlatibatu eta *sozialismoa demokratismoaz uztartu du.

7.- *Leninismoa* (ik. MARXISMO-LENINISMOA).

8.- Luxemburgismoa

Rosa Luxemburgen (1870-1919) *komunismo ezkertiarra antirrebi-sionista porrokatua da. Bernsteinen kontra «katastrofe-teoria» defendatu zuen, *inperialismoaren teoriak baliatuz. Haren originalitatea *iraultza kontzeptuan dago batez ere, *masa-ekintza espontanio gisa bururatzen baitu hura, masa-burruka aktiboaren alderdia biziki azpimarkatuz; *gre-ba orokorrean eta masa-altxamenduan ikusten zuen burrukarako harma iraultzaile erabakiorra. Gero Leninen blanquismo, «*oportunismo», na-zionalitate-politika (ik. NAZIOA) eta «zentralismo antidemokratikoaren» kritikari gogorra ere bada. Luxemburgismoaz batera aipatu ohi da «ko-munismo ezkertiarra» ohi zeritzana (Léon, Gorter, Pannekoek, Korsch, W. Reich...), *sozialismo demokratikoari eta, bereziki, *marxismo-leni-nismoari buruz-buru aurreratua (a. b., espartakista alemanak, trybunista holandesak, **Ordine nuovo** italiarraren parte bat). Komunismo ezkertia-rrak Marx eta Lenin kontrajarri ditu elkarren buruz buru, Lenin marxista ez dela, azkena ateratzeko. Autoreok, Sovietar Erreboluzioari «azken iraultza burgesa» deritzate. Alderdiaren teoria leninistaren izaera fun-tsean burgestzat hartzen dute, haren hierarkismoak eta egitamuak (aban-goardia-masa) explotazio-gizartearen natura dualista (klase nagusi-klase zapaldu) birsortzen omen baitu. Leninen materialismoa ere, dialektikoa ez da, burgesa eta mekanizista baino, *Alderdiari beti jakituria sakratu hutsezinezko bat aseguratzen dion epistemologia batek koroaturik (Pan-nekoek). Leninen nazionaltze-programari gaitzeritzen diote, halaber: ko-munista ezkertiarrek, kapitalismo (Estatuzko kapitalismoa) dirigista au-rreratu gisa interpretatu dute funtsean soviatar *iraultza, beste Estatu ka-pitalista batzu, beren krisiak gainditzeko bide eta eredutzat, hari bereha-laxe jarraituko zaizkiola antzemanen. Hau da: explotaziozko ekonomia kapitalistak, *krisi gero eta larriagoez, beste erremediorik ez dauka azke-nean, Estatuaren *eskusartzea lagun hartzea baino (eta egin ere Errusian, «katemaila ahulenean», horixe egin du), berak ezin burubidatu duen pro-dukzio-prozesua Estatuari gomendatzeko, haren gidaritzapena ekono-miaren berrantolaketa planegile bat eratuz. Honez gero, ekonomia kapi-talistari, *laissez faire* printzipioak ez, baizik Estatuak emanen dio irtenbi-dea krisietatik. Komunista ezkertiarrek diotenez, hango *kapitalismoa-ren atzerapen eta ahultasunagatik izan da hori posible eta beharrezko Errusian; baina zinez sozialismoa nahi bada, *Mendebalean hori (Esa-tuzko kapitalismoa) ezin izan daiteke sozialismorako bidea. Alderantziz, R. Luxemburgek bere iraultza kontzeptuaz bezala, komunista ezkertia-rrak (edo «mendebaleko marxistok», berak izendatzen direnez) libertaris-morantz jo dute: langile-erakunde (*alderdiak, *sindikatuak) klasikoak arbuatu dituzte, *hauteskundeak orobat, lantegi-*batzordeei hoberizte-ko, *demokrazia zuzena, etorkizuneko proletal *boterearen gune eta itu-rri gisa. *Mundu-Gerra bien artean izan du arrakastarik eskola honek.

C) *Sovietar erreboluzioaz gerozko eskolak*

1.- *Komunismo ezkertiarra* (ik. LUXEMBURGISMOA)

2.- *Trotskyismoa* (ik. TROTSKYSMOA)

3.- *Maoismoa* (ik. MAOISMOA)

4.- *Titoismoa*

Jugoslaviak, 1948.ean ***Kominformetik** irten eta Estatzko kapitalismo» sovietaarren aurka jokatu, aurreratu duen *komunismo nazionala da, erlatiboki deserdiratzailea (ik. ERDIRAKOITASUNA) eta autogestionarioa (ik. AUTOGESTIOA).

5.- *Frankfurteko eskola*

Alemaniako hiri hartan, Ikerkuntza Sozialetako Institutuan 1930.eaz gero aurreraturiko eskola neomarxista, kultur eta, bereziki, ideologi kritikoa (Horkheimer, Adorno, Marcuse, E. Fromm, Habermas...), *sozialismo demokratiko ezkertiar baten bidean edo mugitzen dena.

6.- *Neomarxismoa*

Marxismoa 1945.eaz gerozko egoera-berritasunari aplikatzen saiatu den korronteari deritza orokorki neomarxismo, korronte horretan alde oso ezberdinetatik ibili diren joerak aurkitzen ditugun arren (Lefèbvre, Marcuse, Bloch; Frankfurteko eskola). Bere aztergai nagusiak, *burokratizazioa, gizarte superadministratua gizonak jasaten duen manipulazio eta *errepresioa, «kapitalismo organizatua», *faxismoa, neoinperialismoa, izan ditu. Neomarxistek, batez ere *Mendebaleko *gizarte industrial eta teknifikatua aztertzen eta kritikatzuten duten arren, beren kritikak berdintsu harrapatzen ditu *Ekialdeko gizarteak ere, hots, «sozialismo ezarria» deituak.

7.- *Ezker berria*

C.W. Millsek sortu eta zabaldutako kontzeptua da, ezker zaharren (h. d., *sindikatu eta *Alderdi sozialista nahiz komunista tradizionalen) kontra burutu diren *mugimendu eta korronte kontestatarioak adierazteko. Ezker berria iturburu teoriko (Marx, Mao, Marcuse: «3 M» ak;

Freud, W. Reich; *kastrismoa, etab.) eta problematika sozial guztiz ezberdinetatik (*USAko beltzak, ikasleria, etab.) sortua da. *Estatu moderno burokratiko eta teknifikatuak batetik eta kontsumoko gizarteak bestetik, *langileria *sistema barnean integratu eta kontzientzia faltsuan itsatsi dutela, uste du ezker berriak. Kontzientzia iraultzaileak, bada, gizarte sail baztertuetatik etorri baharko duela alegia.

8.- Sozialismo demokratikoa

Antonomasiaz «sozialismo» deitua soilki, ez da propioki eskola bat, praxi bat eta izpiritu bat baizik, *mugimendu sozialistaren birakuntza demokratiko, jeneralean ez iraultzaile, batetatik sortua. Izan ere, badu doktrinarik, baina muga garbi eta finkaturiko tesi gorputz monolitikorik ez. Expreski antidoktrinario errebisionismoaren hildoan dago, *marxismoaren erlatibazio batenean hortakoz. Teorilarien baino gehiago, *sindikatu eta *hautesleen portaeraren eraginez burutu da, baina baldintza ezberdinetan (Ingalaterra, Suedia...) eta lekutik lekura diferente da. Oro har eta, gehienbat negatiboki, *marxismo-leninismotik diferentziazatuz ezaguterazten bada, ohi denez, oinarri eta ezaugarriok ezagun dakizkioke: *demokrazia politiko eta ekonomikoa, alegia, *parlamentarismo pluralista, *produkzio-ondasunen sozialkuntzea (hots, ez derrigor nazionaltzea, ezinbestezko diren adarretan izan ezik) eta baliakizun demokratikoa, produktuaren sozialtzea eta Estatu-eraldakuntzaren gradualismoa, ez bat-bateko iraultza. (ik. SOZIALISMO DEMOKRATIKOA).

SOZIALISMO DEMOKRATIKOA; SOZIAL-DEMOKRAZIA; KOMUNISMOA; TROTSKYSMOA; MARXISMO-LENINISMOA; ANARKISMOA; KAPITALISMOA; GIZARTE-KLASEAK; MAOISMOA; KASTRISMOA.

Bibliografia

Beer, M. (1919-22): *Allgemeine Geschichte des Sozialismus und der sozialen Kämpfe*, Berlin. Cole, G.D.N. (1953-60): *A History of Socialist Thought*, Londres. Dolleans-Grozier (195059): *Mouvement ouvrier et socialiste. Chronologie et Bibliographie*, Paris. Garate, G. (1971): *Marxen Marxismoa*, Bilbao, Gero. Garate, G. (1974): *Marxen Ondoko Errebisionismoa, Rosa Luxemburg, Leninen bizitza*, Bilbao, Gero. Garate, G. (1977): *Maoren Marxismoa: Maoismoa*, Bilbao, Gero. Halevy, E. (1948): *Histoire du socialisme européen*, Paris. Landauer, C. (1959): *European Socialism: A History of Ideas and Movement From the Industrial Revolution to Hitler's Seizure of Power*, Berkeley. Stammhammer, J. (18931909): *Bibliographie des Sozialismus und Kommunismus*, Jena. Ugalde, M. (1971-74): *Langileria historian zehar*, 2 tomo, Bilbao Gero.